

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteartea, 2011ko maiatzaren 24a. VIII. urtea. 2.231. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



Atzo hasi ziren jada hauteskundeetako panelak kentzen. A. IMAZ

Aurpegi gazteak eta berriak iritsi dira

Tolosaldean eta Leitzaldean, 2011ko Udal eta Foru Hauteskundeetan, Bildu nagusitu da gehiengo zabalarekin; eskualdeko herrietan gutxienez 25 alkate berri egongo dira eta lauk errepikatuko dute. Tolosan Ibai Iriarte eta Jokin Bildarratzen artean dago lehia **2-5**

160 bat lagun bildu dira Txapin Festako herri bazkarian

Antolatzaileak gustura daude aurten ere, gazteek kalea hartu eta jai giroan elkarren arteko harremana sendotu dutelako **6**



Bigarrenegoz egin dute baltsen jaitsiera. I. URKIZU

Bidegoianek bakarrik jarraitzen du Herriartekoan

Albiztur eta Alegia txapelketatik kanpo geratu dira, hurrenez hurren, Donostia eta Usurbilen aurka tanto kopuruengatik galdu eta gero **7**

Aska ezazu
irudimena
DISEINATU

ceinpro
TITULAZIO
OFIZIALAK

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA
ZIKLOAK DISEINU GRAFIKOAN

Herria Pasealekua 95 • 20008 Donostia • Gipuzkoa • **943 310 873** • www.ceinpro.es



TOLOSAKO
INMAKULADA
IKASTETXEA



Kondeko aldapa 5B Tolosa • 943 67 36 29
www.inmakuladatolosa.com

HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila		Erdi Maila
- Gizarte Integrazioa - Haur Hezkuntza - Osasun Dokumentazioa - Diagnosi Irudia	AURREMATRIKULAK EKAINAK 1 - 10	- Erizaintza laguntzailea - Farmazia eta parafarmazia teknikaria - Sarbide proba

KALITATEZKO FORMAZIOA

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →



↓ Tolosaldeko datuak

28 HERRIAK	Bildu	EAJ	PSE-EE	PP	Aralar	EB-Berdeak	Hamaikabat
2011 (2007)	11.663 (-)	5.743 (5.220)	1.253 (1.526)	889 (1.002)	597 (-)	286(-)	161 (-)

↓ Leitzaldeko datuak

LEITZA	Bildu (2007)	EA	Aralar	UPN	DNE	Areso Eraikiz
ARESO	1.283 (-)	-(417)	-(138)	130 (309)	110 (-)	-
	-	-	-	-	-	147 (157)



Ezustez beteriko eguna izan zen igandekoa. Irudian Anoetako herritar bat bozka emateko unean. I. GARCIA

2007ko hauteskundeekin alderatuz abstentzioa 10 puntutan jaitsi da

Bilduren 20 zerrendetatik 19k gehiengo osoa lortu dute; Tolosan, aldiz, gehiengo soil

Asier Imaz

Tolosaldean eta Leitzaldean poza eta tristura banatu ditu hauteskunde gauak. Eta hori ez da bate-re ohikoa. Izan ere, hauteskunde-ek demokrazia parlamentario ba-

tean, gehienetan behintzat, tristura gutxi banatu izan ohi dute. Alderdi guztiek alde positiboari heltzen diote irakurketak egitera-ko unean, eta denek irabazi dute-naren sententzia izan ohi da. 2011kako udal eta foru hautes- kudeek ordea, ezpainen noranz-koak ongi markatu dituzte.

Bildu

Bildu EAK, Alternatibak eta inde- pendentiek osatzen dute. 2007ko udal hauteskundeetan ez ziren el- karrekin aurkeztu, ondorioz, ez

dago aurrekaririk. Hala eta guz- tiz ere, EAK 2.383 bozka jaso zi- tuen duela lau urte Tolosaldean eta Leitzaldean. Ezker abertzale- aren bozkek, dirudienez, Bildura joan dira; 2007an guztira 8.062 he- rritarrek egin zuten EAE-ANV-

EAJk duela lau urte baino 523 bozka gehiago lortu zituen igandean

Parte hartze handiena Oreskako izan zen, herritarren %90ak bozkatu baitzuen

ren alde. 11.445 bozka horiek ña- bardura bat behintzat badute, izan ere, EAtik Hamaikabat al- derdia sortu zen 2007ko hautes- kundeak pasa eta gero.

Herenegun, Bilduk 12.946 boz- ka lortu zituen Tolosaldean eta Leitzaldean, hau da, 20 zerrende- tatik 19k gehiengo osoa lortu zu- ten; Tolosan izan zen gehiengo hutsez irabazi zuten bakarra.

EAJ

Bilduk 126 hautetsi lortu baldin bazituen igandean, EAJ 23rekin gelditu zen. 2007an 5.220 bozka lortu zituzten, eta oraingoan 5.743. Udal Hauteskunde hauten beraz, 523 bozka gehiago jaso di- tuzte. Galera, ordea, Tolosako udaletxean izan dezakete; Jokin Bildarratzek alkate jarraitzeko PSE-EEren eta Aralarren babesa beharko baitu.

PSE-EE

Eusko Jaurlaritzan agintean da- goen alderdiak lau hautetsi baka- rrik lortu ditu. Duela lau urte 1.526 bozka lortu baldin bazituen, oraingoan, 1.253.

PP

Espainian ezustekoa eta garaipe- na lortu duen alderdiak 113 bozka galdu ditu Tolosaldean eta Lei- tzaldean. 2007an 1.002 herritarren babesa baldin bazuen, oraingoan 889rena. Hautetsien aldetik or- dea, hutsean gelditu dira. Ondor- ioz, besteak beste, Tolosako Uda- lean eta Lizartzakoan zituzten zi- negotziak galdu dituzte.

Aralar eta EB-Berdeak

Ezker Batua-Berdeak alderdiare- kin osatu zuen Udal Hauteskun- deetako koalizioa Aralarrek 2007an. Orduan, guztira 1.331 boz- ka lortu zituzten. Lau urte beran- duago bakarrik aurkeztu da hau- teskundeetara, 597 bozka lortuaz. Zortzi hautetsi eta alkatetza bat lortu dute, Albizturkoa hain zu- zen ere. Herri honetan, Aralarre- kin batera bi zerrenda gehiago aurkeztu dira, PPrena eta PSE- EErena, hain zuzen ere.

EB-Berdeak alderdiak, 286 boz- ka lortu ditu. Bien emaitzak gehi- tuz gero, duela lau urteko bozke- tatik urrun gelditzen direla ikus- ten da.

Hamaikabat

Tolosan eta Ibarran zinegotziak zituen H1!-ek, nahiz eta 2007ko Udal Hauteskundeetan ez ziren aurkeztu marka horrekin. EAren barruan eskuratu zituzten boz- kak. Ondoren, ordea, alderditik banandu eta Hamaikabat sortu zuten. 2011ko hauteskundeetan zerrendak Ibarran eta Tolosan bakarrik aurkeztu zituzten, 80 eta 81 bozka jasoaz. Hautetsirik gabe gelditu dira.

UPN eta DNE

Leitzan jaso dituzte bozkek alder- di hauek. Duela lau urte UPN be- zala aurkeztu ziren hauteskunde- etan, 309 bozka jasoaz. Silvestre Zubiturrek ordea, alderdia utzi eta Derecha Navarra y Española- rekin aurkeztu zuen zerrenda. Biek ordezkari zena lortu dute Leitzako udaletxean. UPNk 130 bozka lortu ditu eta DNEk 183.

Herri plataformak

Leitzaldean Areso Eraikizek 147 bozka lortu ditu, duela lau urte baino 10 gutxiago. Herrian aur- keztu zen zerrenda bakarra ze- nez, Ur Algeri izango da Aresoko alkatea ondorengo lau urteetan. Tolosaldean 17 herri platafor- men artean 2.180 bozka lortu di- tuzte, eta 61 hautetsi.

Abstentzioa

2011kako Udal Hauteskundeetan abstentzioa %32,81ekoa izan da. Duela lau urte %42,08ekoa izan zen. Tolosaldean eta Leitzaldean parte hartzeak 10 puntuko igoera izan du.

Tolosaldeari dagokionez, igan- dean abstentzioa %33,12koa izan zen. Parte-hartze handiena Ore- xan izan zen, %90,32arekin. Bajuna berriz, Hernialden, %61,57arekin.

Tolosan abstentzioa %34,60koa izan zen; Villabonan %37,92koa; Ibarran %34,75ekoa; Alegian %33,06koa; Anoetan %33,83koa; Iruran %36,36koa eta Asteasun %28,28koa.

Areson herritarren %72ak boz- katu zuen eta Leitzan, azkenik, %71,38ak.

Iragarki laburrak

ESKAINTZA

■ **Klase partikularrak.** Psikope- dagogian eta hezkuntza bere- zian tituludunak LHko eta DBH1 eta DBH2ko ikasleei klase partikularrak emango lizkieke. Andoain, Aduna, Villabona, Zizurkil, Asteasun edo inguruetak herrietan. Intere- satuek deitu ondorengo

telefono zenbaki honetara: 669 00 56 71.

SALGAI

■ **Apartamentua.** Jakan aparta- mentua salgai. Altzariz guztiz hornitua. Erdigunean, parkegune handi baten ondoan. Garajea eta trastelekua ditu. Presio interes- garria. 667 49 25 57.

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →



Bilduk Zerkausion jarraitu zituen hauteskundeetako emaitzak. ASIER IMAZ

Bilduk gehiengoa lortu duen arren, Ibai Iriartek ez du oraindik alkatetza ziurtaturik Tolosan

Hautagaiak lehenengo bozkan gehiengo osoa lortu beharko du; Bilduk berdinketarekin ere alkatetza lor dezake

Itzea Urkizu

Pasa den igandeko udal eta foru hauteskundeen ondoren, Tolosako Udaleko egoera politikoak al daketa nabaria jasan du, eskualdekoarekin batera.

Bildu nagusi izan da Tolosan, bozken gehiengoa jaso baitzuen maiatzaren 22an. Hala ere, Tolosako Bilduko Ibai Iriarte zerrendaburuak, ez du alkatetza ziurtatu. Zortzi eserleku lortu ditu koalizioak, eta ondoren, EAJk eskuratu ditu boto gehien, zazpi eserlekurekin. PSE-EEk eta Aralarrek, zinegotzi bana izango dute Tolosako Udalean. Emaizta hauen arabera, alkatetzarako dauden aukera posibleak alderdi politikoen erabaki, akordio eta bozken arabera izango dira.

Alkatetzarako bi hautagaiak Ibai Iriarte eta Jokin Bildarratz izango dira. Bilduko hautagaia den Iriartek, bere aldetik, alkatetza galtzeko aukera bakarria du, eta egoera honetara iritsiko litzateke, PSE-EEko zinegotziak nahiz Aralarrekoak EAJko hautagaia- ren alde bozka emango balute. Berdinketaren kasuan, edo PSE-

EE edo Aralarrekoen abstentzio- aren kasuan, gehiengo osoa ez luke hautagaia inork lortuko, eta zuzenean, hauteskunde- tan bozka gehien jaso zituen hau-

Jokin Bildarratzek PSE-EE eta Aralarren bozka lortuta bakarrik lor dezake alkatetza

Lehen aldiz, Tolosako udal korporazioko partaide guztiek euskaraz jakingo dute

tagaiak hartuko luke alkatetza. Gauzak horrela, EAJko alkatetza den Jokin Bildarratzek, aukera bakarria du alkatetza eskuratzeke: PSE-EE eta Aralarreko zinegotziek bozka jasotzea. Kasu honetan, 9 bozkarekin gehiengo osoa lortuko luke, eta beste lau urtez alkatetza izango litzateke Bildarratz.

Itzaki Irazabalbeitiak, Bildu zori- ondu eta Aralarren alde apus- tua egin duten herritarrei eske- rrak eman ondoren, bere alderdia alkatetzaren auzian «giltzarria» izan daitekeela adierazi du. Au- rreiritzirik ez dutela nabarmen- du nahi izan du, eta beharrezkoa den guztiek hitz egingo dutela. Euren erabakia «betiere» progra- metan eta programa horiek lau urteotan gauzatu nahi dituzten

moduan oinarrituko dutela na- barmendu du: «Proiektu horiek egiteko moduz hitz egingo dugu, eta ez hainbeste proposa- men programatiko-ideologikoen inguruko gaiez». Azkenik, lortu- riko emaitzak «aurreikusitakoa ez direla izan» aipatu du Arala- rreko zerrendaburuak.

PPko Pello Atxukarro, bere aldetik, PSE-EEk eta beraiek lan egiteko dituzten «zailtasune» egotzi die euren eserlekua galdu izana, eta alkatetzaren auziaren inguruan, ez du iritzi garbirik azaldu: «Gu ez gaude barruan, or- duan, ez dakit zer irakurketa edo zer estrategia moldatuko dituz- ten».

Udal korporazio euskalduna

Azken urteotan, Tolosako Udale- an ospatzen ziren batzar oroko- rretan euskara izan da udaleko arazoak eta proiektuak eztabai- datzeko hizkuntza bakarria. Eus- karaz ez dakiten Oscar Renedo eta Angel Yañez zinegotziek, zu- zeneko itzulpen zerbitzua izan dute, entzungailuen bitartez.

Azken hauteskundeetako emaitzen ondoren, ordea, udal korporazioa azken urteotako eus- kaldunena izango da. Aipatu be- har da, hala ere, EAJko Julia Car- bonell euskaraz ikasten ari dela.

Foru Aldundirako ere Bildu

Gipuzkoako Batzar Nagusietara- ko bozkei dagokienez, Tolosan

Bilduk jaso zituen pasa den igan- dean bozka gehien, 3.795ekin; %40,66a.

Bigarren indarra EAJ izan zen, 3.219 bozkarekin, eta bozken

%34,49arekin. PSE-EEk bozken %7,71a lortu zuen, Aralarrek %5,81a, PPk %5,54a, EBk %2,11, H1'ek %1,10a, Berdeak %0,51 eta PUM+J-k %0,18a.

↓ Foru Aldundia

Alderdia	Bozka	%
Bildu	3.795	40,66
EAJ-PNV	3.219	34,49
PSE-EE	720	7,71
Aralar	542	5,81
PP	517	5,54
EB	197	2,11
Hamaikabat	103	1,10
Berdeak	48	0,51
PUM+J	17	0,18
ZURIAK	175	1,88

↓ Tolosako Udal

Alderdia	Bozka	%
Bildu	3.804	40,53
EAJ-PNV	3.629	38,67
PSE-EE	586	6,24
Aralar	475	5,06
PP	464	4,94
EB	202	2,15
Hamaikabat	83	0,88
ZURIAK	142	1,51



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

25 herritan gutxienez alkate berriak izango dira

Tolosaldeko lau alkatek errepikatuko dute alkatetza; Baliarraingoa, Belauntzakoa, Larraulgoa eta Hernialdekoa izango dira.

Leitzaldeak alkate berriak izango ditu: Oier Eizmendi Leitzan eta Ur Algero Areson.

Eneritz Maiz

Igandeko Udal eta Foru Hauteskundeak eman dute eman beharrekoa. Emaiza guztien zurrumbiloaren artean, ekainaren 11n udalbatza berriak osatuko dituzte. Tolosaldeko eta Leitzaldeko datuak begiratuta, hautetsien gehiengo berria izango da. Hogeitamar herrietatik 25 herritan gutxienez, alkate berria izango dute.

Errepikatuko dutenen artean lau baino ez dira aurkitzen: Martzelino Dorronsorok, Baliarraingoa alkate bezala bosgarren legegaldiari ekingo dio ekainetik aurrera. Igaro Baldak Hernialden, Mariano Lazkanok Belauntzan

eta Xabier Mujikak Larraularen bigarren legegaldiari emango diote hasiera.

Aurpegi berriak

Ekainetik aurrera, Tolosaldean eta Leitzaldean, gazte asko sartuko da politika mundura. Aire eta aurpegi berriak eskainiko dizkio gaur egungo politikari. Hala ere, guztietatik, bost baino ez dira izango emakumeak.

Abaltzisketan, orain artean zinegotzia izan den Jon Zubizarretak hartuko du alkate kargua. Kasu bera gertatuko da Alkizan ere, Jon Rotetaren testigua, Jon Umerezek hartuko baitu. Albizturren kasuan, Aralarrek ateratu du zerrenda, eta Gregorio Iraola

izango da hurrengo lau urteetako alkatea. Areson, Mikel Baraibarren zortzi urteko ibilbidea bukatuko da, eta Ur Algerok hartuko du herriko agintea.

Asteasuren kasuan, hamasei urtez aginte makilarekin izan den Iñaki Amenabarren postua, Asteasu Batuz taldearen buru den Pili Legarrek izango du.

Tolosaren kasuan, Ibai Iriarte zerrendaburu duen Bildu koali-

zioa izan da bozka gehien jaso dituen, baina ez da ziurra alkate-tza nork eskuratuko duen, eta itxaron egin beharko da.

Gainerako herri guztietan, hau da, 19 herritan, gehiengo osoa eskuratuz, Bildu koalizioak izango du alkatetza. Alkate eta hautetsien gehiengo osoa, aurpegi berriei osatua izango da. Guztira, eta Tolosakoa kontatu gabe, 25 alkatek lehen aldiz hartuko dute

aginte makila Tolosaldean eta Leitzaldean.

Aduna, Foru Aldundiaren zain

Adunan, oraingo udal taldeak funtzioetan jarraitu beharko du. Foru Aldundiak hurrengo sei hilabeteetan erabakiren bat hartu beharko du, udal taldea osatzeko. Alderdi popularrak ez zuen eskuratu bozken %5a, eta udal taldea osatu gabe geratuko da.

↓ Alkatetzak ziurtatuta

Abaltzisketa	Jon Zubizarreta
Albiztur	Gregorio Iraola
Alegia	Unai Iraola
Alkiza	Jon Umerez
Altzo	Miren Balerdi
Anoeta	Pedro Maria Estanga
Amasa-Villabona	Galdier Azkue
Amezketza	Iñaki Amundarain
Areso	Ur Algero
Asteasu	Pili Legarra
Baliarrain	Martzelino Dorronsoro

Belauntza	Mariano Lazkano
Berastegi	Aritz Mujika
Berrobi	Joseba Iñigo Ayerza
Bidegoian	Jose Ramon Goikoetxea
Elduain	Iñigo Etxebeite
Gaztelu	Mikel Bellosa
Hernialde	Igaro Balda
Ikaztegieta	Iker Otamendi
Irura	Ainhoa Ugalde
Ibarra	Jexux Peñagarikano
Larraul	Xabier Mujika
Leaburu	Luisa Uzkudun
Leizta	Oier Eizmendi

Lizartza	Aitor Agirre
Orendain	Gorka Egia
Orexa	Eneko Maiatz
Zizurkil	Jose Maria Luengo

↓ Alkatetza ziurtatu gabe

Tolosa	Ibai Iriarte
--------	--------------

↓ Alkatetza funtziotan

Aduna	Arantza Aburua
-------	----------------

Euskarazko komunikabideak DENON BEHARRA



Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz



ZURRIOLA IKASTOLA I.K.E.

Barandiaran Lizeoa

Barandiaran Lizeoa
Manuel de Lardizabal 26
(Ibaeta auzoan)
tel 943272587
zurriola@ikastola.net

Gorputz-kirol Ekintzen Sustapena
Goi mailako heziketa zikloa

Ate irekiak:
Maiatzak 25 18:00etan



Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →

Bildu lehen indarra bilakatu da Gipuzkoan 22 batzarkide eskuratu ondoren



Bi eskualdeetan Bildu izan da garaile nabarmenki. M.G.

Nafarroako Legebiltzarreko hauteskundeetan UPN izan da garaile 111.278 bozkekin

M. Ugartemendia

Bilduk marka guztiak hautsi ditu Gipuzkoan; Batzar Nagusietarako hauteskundeetan lehen indarra izan da eta bigarrenarekiko alde handia du, gainera.

Gauzak honela, Bilduk gehien-go zabala lortu du Batzar Nagusietan, 22 batzarkiderekin. EAJk bi batzarkide galdu ditu, eta orain 14 ditu; PSE-EE 16 izatetik 10 izatera pasa da; PPk 6 zituen, eta 4 izango ditu orain; eta Aralarrek ere batzarkide bat eskuratu du, 2007ko hauteskundeetan Ezker Batuarekin batera 6 lortu zituen.

Tolosaldeko Batzar Nagusietarako emaitzak ere antzeko joera izan dute. Bildu izan da alderdirik

bozkatuena eta EAJ izan da bigarrena. Aldiz, eskualdean Aralar izan da hirugarren alderdirik bozkatuena, eta PP laugarrena. PSE-EE, EB eta Hamaikabat izan dira hurrengo alderdiak, hurrenez hurren. Deigarria da bozka zurien eta baliogabeen kopurua ere.

Hortaz, alderdiek egiten dituzten hitzarmenen bidez erabakiko da erakundearen osaera.

Nafarroan UPN garaile

Nafarroan UPNk irabazi ditu Nafarroako Legebiltzarrari dagozkion hauteskundeak. Eta, bigarren indarra PSN izan den arren, alderdi abertzaleek ere bozka asko eskuratu dituzte.

Alderdi gehienek jaitziera nabarmena izan dute Nafarroan. UPNk orain dela lau urte baino 3 eserleku gutxiago ditu orain. Hala ere, ezin da ahaztu lehen aldiz PP ere aurkeztu dela Legebiltzarreko hauteskundeetara eta 4 eserleku lortu dituela, gainera. Nafarroako bigarren indarra PSN izan da, 9 eserlekurekin.

Hala ere, jaitziera garrantzitsua izan du orain dela lau urte 12 baitzituen. Nafarroa Baik ere eserlekuak galdu ditu, eta 12 izatetik 8 izatera pasa da. Bildu indar handiarekin sartu da, 7 lortu baititu. Ezkerrak 3 eskuratu ditu. Leitzaldeari begira, Bildu izan zen garaile, alde handiarekin.

Batzar Nagusietan bezala, Nafarroako Legebiltzarrean ere gehiengo lortu ahal izateko hitzarmenetara jo beharko dute alderdiek.

↓ Batzar Nagusiak

Alderdia	Tolosaldea	Oria	Gipuzkoa
Bildu	11.913	27.582	119.094
EAJ	6.494	17.651	80.855
PSE-EE	818	8.559	58.931
PP	1.036	3.468	34.209
Aralar	1.274	3.486	17.230
HI!	282	2.246	8.662
EB	339	1.348	9.014
Gainerakoak	199	598	8.126
Zuriak	481	1.258	7.596
Baliogabeak	238	666	4.069

↓ Nafarroako Legebiltzarra

Alderdia	Leitzaldea	Nafarroa
Bildu	1.171	42.839
NaBai	302	49.768
PSN	30	51.054
PP	30	23.449
UPN	154	111.278
I-E	17	18.409
CDN	17	4.651
Gainerakoak	122	12.923
Zuriak	28	8.151
Baliogabeak	17	4.039



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Otordua

Ñañarri Jatetxean
2 lagunentzako
bazkaria edo afaria



Larraitx auzoa • Abaltzisketa • Tel.: 943-65 58 15
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

**2 Otordua**

Kako Jatetxean
2 lagunentzako
bazkaria edo afaria

Herriko plaza, 7 • Berastegi • Tel.: 943-68 30 59
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

**3 Otordua**

Ostatu Hernialde Jatetxean
2 lagunentzako bazkaria edo afaria



Hernialde • Tel.: 943-65 24 96
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

4 Ile mozketa

Mikel Izagirre
ileapaindegian
ile mozketa



Gorosabel, 27 behe • Tolosa • Tel.: 943-67 52 49
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan, Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

DENAK TABERNA
Igaralde 4 • Tolosa • Tel.: 943 671 627

2=1 kupoia ogitartekoetan
Astelehenetik ostegunera

Ogitartekoak 2=1
batek ordaindu eta bigarrengoak doan

IZEN-ABIZENAK

HARPIDEDUN KODEA

ERABILITAKO EGUNA

ARGITARATZE EGUNA: 2011-05-24
ERABILITZKO EPEA: hilabete

2=1 kupoia

MOZTU eta erabili zure harpidedun txartelarekin batera*

Tolosako gazteek berriz ere hartu dituzte herriko kaleak

Txapin Festaren laugarren edizioan jende asko bildu zen baltsen jaitsiera ikusteko

Rebeka Calvo Tolosa

Urtetik urtera indartzen ari da Txapin Festa. Antolatzaileek aurreten ere, helburu bera zuten: «Gazteak lokal, taberna eta koadrila-tik atera, eta denen artean jai gi-

roan kalea hartzea». Larunbatean izan zen IV. Txapin Festa, eta egin ohi dutenez lokalez lokaleko poteoarekin hasi zuten eguna. Ondoren, baltsen jaitsiera egin zuten, eta ikusle asko erakarri zituzten.

160 bat pertsona bazkarian Bazkaria Plaza Berrian egin zuten, eta 160 bat gazte bildu ziren. Jokoak ondoren egin zituzten. Bazkarioko txartela erosi zutenen artean kolore desberdinetako elastikoak banatu zituzten, eta

horrela osatu zituzten jokoak egiteko taldeak. Mulanboren doinuek lagunduta, jende asko bildu zen Plaza Berrian jokoak ikusteko, eta gero Keiran taldearen kontzertua izan zen. «Giro oso ona egon zen, eta jende asko elkartu ginen, bai bazkarira etorritakoak, eta baita ondoren gerturatutakoak ere», argitu dute antolatzaileek. Yucatan eta Switch taldeen kontzertuak ere egon ziren afaldu eta gero, eta ondoren, tabernetan DJ ugariaren musika egon zen.



Aurten bigarren aldiz egin dute baltsen jaitsiera. I. LURKIZU

Angel Magoa ikusteko aukera, Albizturren

Kultur Astearen barruan maiatzaren 27an izango da emanaldia, 18:00etan udaletxean

R.C. Albiztur

Albizturko eskolako umeak izan ziren Kultur Astearen bigarren ekitaldiaren protagonista.

Txikiak *Koloreak ikasten* abestu zuten lehenengo, eta ondoren, handixeagoak direnak, hiru taldetan banatuta antzezlan bana eskaini zuten udaletxean.

Arkaitz Elkarrekin eta udalak antolatzen duten Kultur Astearen hurrengo ekitaldia hilaren 27an izango da. 18:00etan Angel Magoak *Muykishow* emanaldia eskainiko du udaletxeko hitzaldien aretoan.

Hurrengo egunean, hilaren 28an, Gesaltzara ibilaldia egingo dute, eta izena udaletxean eman behar da. Hilaren 29an beste ibilaldi bat egingo dute. 08:00etan herriko plazatik irtenda Mendi-

kuteko kobazuloak ikustera joango dira, eta ondoren hamaiketakoa egingo dute.

Bukatzeko, ekainaren 3an, lau bakarriketa entzuteko aukera izango da, izan ere *Txikieriak, superrak, etxeokandreak...* izeneko antzezlanaren oinarria bakarriketak dira. 20:00etan ikusi ahal izango da lana udaletxeko hitzaldien aretoan.



Eskolako haurrek eskainitako emanaldietako bat. HITZA

→ Laburrak

Odola emateko aukera gaur, 18:30ean

BERASTEGI > Gaur herriko eskolan 18:30etik aurrera odola emateko aukera izango da. Berastegiko Odol Emaileen Elkarteko kideek herritar guztiak animatzen dituzte odola emanez laguntzera.

MobyDick kantautorearen kontzertua Auggie dendan

TOLOSA > Auggie dendako arduradunek azaldu dutenez, ostiralean, hilak 27, 19:00etatik aurrera MobyDick entzuteko aukera izango da, doan. MobyDick-en atzean Eneko getxotarra dago. Folka lantzen duen kantautorea da MobyDick, eta Jonny Cash edo Pearl Jam taldeko Eddie Vedderren ahotsa ekartzen ditu gogora.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen duen pertsona bakartak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider gareniz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erabazteko izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

↓ **Kirol emaitzak****PILOTA****ESKUZ BANAKAKO****TXAPELKETA**

Bigarren Maila, finalerdia	
Jaunarena	19
Merino I	22

HERRIARTEKO TXAPELKETA

Kadeteak	
Alegia-Usurbil	4-22
Jubenilak	
Alegia-Usurbil	22-21
Nagusiak	
Alegia-Usurbil	22-16
Kadeteak	
Donostia-Albztur	22-12
Jubenilak	
Donostia-Albztur	15-22
Nagusiak	
Donostia-Albztur	22-7
Kadeteak	
Lasarte-Bidegolan	5-22
Jubenilak	
Lasarte-Bidegolan	7-22
Nagusiak	
Lasarte-Bidegolan	22-14

FUTBOLA**ERREGIONAL OHOREZKO****MAILA**

33. jardunaldia	
Tolosa CF	2
Trintxerpe	0

Sailkapena

- Hernani (75 puntu)
- Real Union (74 puntu)
- Pasajes (65 puntu)
- 7. Tolosa CF (50 puntu)**

ARETO FUTBOLA**NAZIONAL A MAILA**

30. jardunaldia	
Lauburu Ibarra	1
Zalatambor Area 99	2

Sailkapena

- Zierbena (71 puntu)
- Zalatambor (53 puntu)
- Kirol Sport (52 puntu)
- 8. Lauburu Ibarra KE (46 puntu)**

NAZIONAL B MAILA

30. jardunaldia	
Laskorain Ikastola	8
Transportes Lakunza	5
Irish Pub Sheperds	1
Concepto Createch	6

Sailkapena

- Concepto Createch (82 puntu)
- 2. Laskorain Ikastola (65 puntu)**
- Bilbo (62 puntu)
- 10. Irish Pub Sheperd's (36 puntu)**
- 12. Transportes Lakunza (34 puntu)**

EUSKAL LIGA

30. jardunaldia	
Hirukide Tolosala	7
Sasikoa B	3

Sailkapena

- Inter eder (63 puntu)
- 4. Hirukide Tolosala (51 puntu)**

Mikel Nieve gailurrera iritsi da

Euskaltel-Euskadiko txirrindulari leitzarrak Giroko etaparik menditsuenean lortu du garaipena

Imanol Garcia Leiza

Mikel Nieve leitzarrak lorpen ikaragarria erdietsi du Giroko etaparik menditsuenean irabazi eta gero. Euskaltel-Euskadiko txi-

rrindulariak Conegliano eta Gardeccia val di Fassa arteko etapa, 229 kilometrokoa, irabazi zuen. Lehen mailako mendatean amaitu zen, eta aurretik maila bereko beste bi izan zituzten, maila bereziko bat eta bigarrenko bat.

Aurreko Espainiako Vueltan mendiko etapa bat eskuratu zuen Nievek, eta aurtin Giroan lortu du. Ez daude txirrindulari asko horrelako garaipenak dituztenak.

Euskaltel-Euskadirentzat Ita-

liako Giroan asteburu biribila izan du. Nievek igandean irabazi zuen eta Igor Antonek larunbatean. Bi etapak ere, mendian.

Leitzarrak irabazitakoa oso etapa mugitua izan zen, borrokatua. Denera sei mila metroko desnibela izan zuten —orain arteko gehiena—, eta Nieve hasieratik aritu zen aurrean. Pazientzia handiz jokatu zuen, une batean Garzellik alde egin zuenean minutu bat pasara egon zelako Euskaltelekoa atzetik. Azkeneko

mendatearen hasieran harrapatu zuen italiarra, eta segituan zion eraso. Helmugara artean alde handituz joan zen. Contador indartsu zihon atzetik, baina ez zion astirik eman Nieve harrapatzeko.

Etaparen ostean, Nieve sailkapen orokorrean bosgarrena jarri da, Contadorretik 7.03ra. Atzo atseden eguna izan ostean, gaur krono-igoera izango dute, 12,7 kilometrokoa. Hilaren 29an bukatuko da Giroa, Milanen.

Bidegoianek egin du bakarrik aurrera Herriarteke Txapelketan

Alegiak Usurbilen aurka eta Albizturrek Donostiaren aurka, tanto kopuruengatik galdu dute

I. Garcia

Ez da asteburu samurra izan Herriarteke Txapelketan eskualdekoentzat. Hiru herrietatik bakarrik jarraituko du aurrera, Bidegoianek. Lasarteri kanporaketa osoan 5-1 irabazi dio. Alegiak eta Albizturrek ezin izan dute kanporaketa gainditu. Tanto kopuruak utzi ditu bi herriak txapelketatik kanpo.

Bidegoianek Lasarteri kadeteetan 5-22 eta jubeniletan 7-22 ira-



Alegiako kanporaketa jokaturako partidetakoa bat. E. MAIZ

bazi zion, eta nagusietan 22-14 galdu. Luis Galarraga Bidegoiango arduradunak azaldu duenez, «taldearekin oso gustura gaude. Horrelako herri txiki batek bi kanporaketa gainditzea nabarmentzekoa da». Hurrengo aurkaria

Hernani izango dute. «Oso zaila izango da kanporaketa», esan du Galarragak. «Taldea osoa da. Nagusien mailakoak oso sendoak dira. Kadeteetan aukera izan dezakegu eta jubeniletan ezustekoa ematen saiatuko gara». Joaneke

partidak larunbatean jokaturako dituzte, Bidegoiango frontoian, 19:30ean.

Alegiarrek etxean jokatu zituzten itzulikoak. Kadeteetan 4-22 galdu zuten, eta jubeniletan 22-21 eta nagusietan 22-16 irabazi. Usurbilekoak pasatu dira aurrera tanto kopuruengatik. Felix Irastabarrenak nagusien partida nabarmendu du: «Partida handia izan zen, joko onarekin, eta frontoira joan ziren zaletuei zapore ona utzi zien».

Albizturrek abantaila zuen Donostiaren aurkakoa, etxean 2-1 irabazi ondoren. Atano III. ean, baina, kadeteetan 22-12 eta nagusietan 22-7 galdu zuten, eta jubeniletan 22-15 irabazi. Nagusien mailako partida izan zen gakoa. Gorka Arandia taldeko arduradunak dioenez, «donostiarek partida ona jokatu zuten». Udalaren, Arkaitz elkartearen eta Aurrera Saiatz elkartearen laguntza eskertu dute taldeko kideek.

Igerilari gazteenek, emaitza bikainak

Igerilari Osoaren Txapelketan zein Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan aritu dira

I. Garcia Tolosa

Tolosaldea I.K.T. taldeko igerilari gazteenek emaitza bikainak lortu berri dituzte, bai Igerilari Osoaren Txapelketan bai Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan. Taldeko Ekain Agotek bere adinean Igerilari Osoaren Txapelketa irabazi zuen. Lehiaketa horretan Leire Erbitik laugarren postua lortu zuen. Ander Arruabarrena eta Iñaki Beitia bosgarren izan ziren, bakoitza bere adinean. Iosu Molinerok eta Pablo Urangak seigarren postua lortu zuten. Emaitza nabarmenak lortu zituzten beste igerilariak Beñat Urruzola,



Tolosaldea I.K.T.ko igerilari gazteak. HITZA

Ion Urdangarin, Aitor Arruabarrena eta Kepa Oiartzun izan ziren.

Eskolarteko Txapelketari dagokionez, Nerea Rodriguezek urrezko domina lortu zuen 200 metro bizkar proban eta zilarrezkoa 100 metro bizkar estiloan. Julen Urretabizkaik 1.500 metroren urrezko domina lortu zuen eta zilarrezkoa 100 metro estilo-

tan. Xabier Beitiak urrezkoa 400 metro estiloetan eta zilarrezkoa 200 metro bizkar estiloan eskuratu zuen. Ondorengoek ere dominak lortu zituzten: Marina Etxarri, Ander Alkorta, Zuriñe Iglecias eta Juan Garikano. Emaitza nabarmenak lortu zituzten Uxue Zabala, Iker Badallo, Iban Juarrros, Irati Puyadena eta Eider Urriaz.

Laskorain bigarren geratu da ligan eta igoera fasea jokatu du

Gorka Amatrain Tolosa

Ligako azken partidua izaki, derbi zirragarri bat tartean eta lortutako bigarren postuarengatik taldea behar bezala zoriontzeko asmotan, sekulako jendetza bildu zen joan den larunbatean Usabalgok kiroldegian Laskorain eta Transportes Lakunzaren arteko partidatan. Tolosarrek 8-5 irabazi zitoten billabonatarrei.

Laskorain Ikastolak igoera faseari ekingo dio datorren asteburuan. Nafarroako ligako txapel-duna izan den Antsoaingo Gazte Berriak taldearen aurka jokatu du. Joaneke norgehiagoka larunbatean izango dute etxetik kanpo.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Hernialde, Inura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurak



Zorionak Irati!

Amezketatik Brievara 26 muxu goxo. Hegan itteko jaioak gaxin! Matte zattu!



Zorionak!

Maialen Zubeldia Azkolain
(Ibarra). Atzo 3 urte. Zorionak
birramona Tereren partetik.



Zorionak Manex!

Atzo 3 urte bete zenituen, eta
horregatik muxu handi-handi bat
bidaltzen dizugu amona Joxepik,
Dabidek, Mirenek eta Leianek.
Jarraitu horren alaia izaten.

Argazki Lehiaketako irabazleak

Inmakulada Sorondo,
Arantxa Arsuaga eta
Olatz Gereñoren
irudiak izan dira
bozkatuenak

R.C. Herria

XIII. HITZA Argazki Lehiaketak
irabazleak ditu jada. Lehen saria
Inmakulada Sorondok eskuratu-
ko du, hau da Photokafek eskaini-
tako Sony DSC-HX1 argazki ka-
mera.

Bigarrenak, Arantxa Arsuaga,
Markina-Xemeingo Satzu
landetxean bi pertsonentzako bi
gaueko egonaldia irabazi du, eta
Olatz Gereñok Tolosako Amaro
jatetxean bi lagunentzako otor-
dua irabazi du.

Bozka eman duten harpidedu-
nen artean Xabier Esnaolak jaso-
ko du saria. HITZA jarriko da ira-
bazleekin harremanetan.



Sorondo, Arsuaga eta Gereño izan dira irabazleak. HITZA



SALESIANOS urrieta
SALESIARRAK

LANBIDE HEZIKETA
FORMACIÓN PROFESIONAL

Oreratu grafikoa, Inprimakeria, Sargaria, Mekatronika, Elektrotiketa, Elektroi-
tiketa, Grafikoa, Inprimaketa, Sargaria, Mekatronika, Elektrotiketa, Elektroi-
tiketa

Ikastetxea ikusleko aukera
puertas abiertas

maiatzak 28, 10:00-13:00
28 de Mayo, 10:00-13:00

zatoz ven
Eramangarri baten
Zozketa

www.salesianosurrieta.com

maiatzak 29
IBILALDIA 2011
ONDARROA BOGA!

ERABILI GARRAIO PUBLIKOAK ONDARROARA ETORTZEKO!
EPO IZENA EMAN ZURE HERRIAN ANTOLATU DEN AUTOBUSEAN!